

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURAKO UDALA

2370

IRAGARKIA, 2023ko maiatzaren 2ko Ebazpenari buruzkoa, zeinaren bidez zenbait plaza betetzeko deialdia egiten baita.

2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (247. zenbakia), hain zuzen ere, honako hauek hornitzeko ezohiko egonkortze-prozesuaren deialdia arautuko duten oinarriak argitaratu dira:

- Eginkizun anitzeko bi lanpostu, Administrazio Berezia eskalakoak, Zerbitzu Berezien azpieskalakoak, lehiaketa bidez, txanda irekian.
- Gida turistikoko bi lanpostu, Administrazio Berezia eskalakoak, Administraria azpieskalakoak, lehiaketa bidez, txanda irekian.
- Liburutegiko arduradun lanpostu bat, Administrazio Berezia eskalakoak, Administraria azpieskalakoak, lehiaketa bidez, txanda irekian.

Eskabideak aurkezteko epea hogeit egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Deialdi honi buruzko hurrengo iragarkiak, oinarrien arabera egokiak direnean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Segurako udaletxeko iragarki-oholean eta Udalaren web orrian (www.segura.eus) argitaratuko dira.

Segura, 2023ko maiatzaren 12a.

Alkateordea,
EKHI ALBIZU TELLERIA.